

/ Nabarmentzekoak

- > Etxe-abereak jasotzeko udal zerbitzuan dauden txakurrak adopzioan emateko kanpaina (2. or.)
- > "Getxo Erika gara" proiektua sortu dute (2. or.)
- > Ospakizunak San Juan gaua dela eta (3. or.)

BIZITZAK SALBATU NAHI DITUZU?

Bihotz Handi odol-emaileen elkarteak 25. urteurrena ospatuko du (4. orr.)

Zubiletako jaiak. Ostirala, hilak 21, 16:00etan, txupinazoa. Ekitaldi ugari datorren igandera arte, hilak 23.

A
GENDA

3. Txiki Kanta. Igandea, hilak 30, 12:00etan, Muxikebarriko Ereaga aretoan, haur-abetesatzen jaialdia sei talderen eskutik. Sarrera: gonbidapenez.



Udalbatza berria



Amaia Agirre, alkate andrea

Getxok daukan lehenengo alkate andrea

Udalbatza berria osatu da eta Amaia Agirre da udalburua

Amaia Agirre Muñoa EAJ/PNVko zerrendaburua izendatu dute Getxoko alkate datozen lau urteetarako. Agirre, Komunikazioa, Gardentasuna eta Partaidetzarako zinegotzia izan da amaitu berri den Legegintzaldian. Udalbatza berria osatzeko bilkuran, Agirrek jaso zituen EAJ/PNVren 11 zinegotzien botoak. PPren hautagaiak, Eduardo Andradek, bost jaso zituen, bere taldearenak; EH-Bilduren hautagaiak, Nerea Guijarrubiak, bere alderdiaren lauak; eta Elkarrekin Podemosen hautagaiak, Ignacio Roblesek, bere taldeak lortutako bi zinegotzienak. PSE-EEK boto zuria eman zuen.

Adin-Mahia delakoa osatu zuten lehenago zinegotzi berri nagusienak eta gazteenak, M^a Asunción Olaeta eta Gonzalo Ayo sozialistak, hurrenez hurren, eta Udaleko Idazkariak, Ignacio Etxebarriak. Ondoren, hautatutako 25 zinegotziek (14 emakume eta 11 gizon) Konstituzioaren zina egin edo, legeak hala aginduta, promestu zuten. Horren ostean, osatutzat eman zen udalbatza berria.

Jarraian, udal agintari gorena hautatzeko sekretupeko bozketa egin eta Amaia Agirre da hautatu zutena. Udalburu kargua promestu zuen legeak hala aginduta, eta Imanol Landa kargua utzi duen

alkatearen eskutik aginte-domina eta -makila jaso zituen, alkatearen bereizgarri direnak.

Domina eta makila jaso ondoren udalburu berriak aipatu zuen "gaur ibilbide berria hasten dugu berrikuntzaren eta oparotasunaren sinonimoa den Getxo honetan; XXI. Mendean nortasun propioarekin aurrera doana, hazi, bizi, lan egin eta gozatzeko udalerrri hobere-netakoa izateko asmoz". (Mintzaldi osoa: www.getxo.eus/eu/).

Udalburua izendatu eta Udalbatza berria osatzeko ekitaldiari txistulariek eta ohorezko aureskuak jarri zioten amaiera.



Giza laguntza bat Honduraseko Omoa udalerrirako

Udalak 11.966€-ko diru-laguntza Medicus Mundi Bizkaia erakundeari emango dio, Honduraseko Omoa udalerrian giza laguntzako proiektu bat aurrera eramateko, etengabeko uholdeak pairatzen dituzten inguruko herritarrak artatzeko. Omoa kostaldean dago eta emandako diru-laguntza bertan bizi diren 84 familiek jasaten dituzten etengabeko uholdeen ondorioei aurre egiteko proiektu baterako izango da. Diru-kopurua egindako aterpean edateko ur sistema bat eta sukalde bat eraikitzeke izango da, alerta egoeretan komunikazio sistema bat ahalbideratzeaz gain. Genero ikuspegia txertatuta egongo da aurrera eraman beharreko jardueretan.

UDALBATZA BERRIA

***EAJ/PNV:** Amaia Agirre Muñoa, Keltse Eiguren Alberdi, Irantzu Uriarte Gómez, Álvaro González Pérez, Ignacio Uriarte Gorostiaga, Joseba Arregi Martínez, Iñigo Urkitza Yañez, Carlos Sergio Atxotegi, Janire Ocio Celada, Ainhoa Galduroz Álvarez eta Arantza Rica Álvarez.

***PP:** Eduardo Andrade Aurrecoechea, Francisco Javier Elorza Hormaeche, Gonzalo Zorrilla-Lequerica Pañeda, Alicia González del Valle Francos eta Natalia Aranduy Zuazagoitia.

***EH-Bildu:** Nerea Guijarrubia Garzia, Ibon Rodríguez Larrinaga, Itxaso Maseda Saratxo eta Cristina Zamora Chuquiguanga.

***PSE-EE:** Carmen Díaz Pérez, Gonzalo Ayo Jiménez eta M^a Asunción Olaeta Pérez de Mediola

***Elkarrekin Podemos:** Ignacio Robles Fernández eta Paula Amieva Clemente.



EKAINAK 20 OSTEGUNA

Odol-emate. Areetako Geltokia plazan. Goiz eta arratsalde.

Bigarren Eskuko Liburuaren 14. Azoka Solidarioa. Algortako Kultur Etxean. 11:00-14:00 eta 17:00-21:00.

Ipuinaren ordua. 2018/19 denboraldiaren amaiera. Romo Kultur Etxeko bebetekan, 18:00etan, Izaskun Mujikaren eskutik, "Ipuin bihurriak". Euskaraz. 4 urtetik gora. Sarrera dohainik.

Literatura topaketa. Villamonteko liburutegian, 19:45ean, Kultur Etxearen Sortze-idazketa taileraren eskutik, solasaldia "Los turistas desganados" eleberraren egile den Katixa Agirrekin. Sarrera dohainik.

Azaleko minbiziaren aurkako kanpaina. Algortako Geltokia plazan. 11:00-14:00 eta 17:00-20:00.

EKAINAK 21 OSTIRALA

Bigarren Eskuko Liburuaren 14. Azoka Solidarioa. Algortako Kultur Etxean. 11:00-14:00 eta 17:00-21:00.

Haurrentzako kontzertua. Muxikebarriko Ereaga aretoan, 19:00etan, "Irribanda", Pirritx, Porrotx eta Mari Motots; Andrés Isasi Musika Banda eta Biotz Alai Txiki, Lilura eta Kimets Abesbatzak. Sarrerak agorturik daude.

Zubiletako jaiak. 16:00etan, txupinazoa eta puzgarriak; 17:30ean, mozzorro txapelketa; 20:00etan, Mugi Boogie haur saioa; eta 22:15ean, Beltrance DJ.

EKAINAK 22 LARUNBATA

Bigarren Eskuko Liburuaren 14. Azoka Solidarioa. Algortako Kultur Etxean. 11:00-14:00 eta 17:00-21:00.

Balkoitiik Balkoira. Portu Zaharrean, 22:00etan, Algortako Bertsolari Eskolaren eskutik, bertso saioa: Onintza Enbeita eta Sustrai Colina. Sarrera dohainik.

Ingurumen Aretoa. 10:15-12:15, familientzako Escape Rooma. Beharrezkoa da alde aurretik izena ematea. Tel.: 688 88 35 96 <http://www.ingurumenaretoage-txo.eus/?lang=eu>

Zubiletako jaiak. 12:00etan, bertsolariak; 13:00etan, zumba; 14:30ean, tortilla txapelketa; 16:30ean, mus txapelketa; 17:00etan, puzgarriak eta margo eta igela txapelketa; 18:00etan, Dantza Plaza Zubiletan; 19:00etan, Estratos globoak; 19:30ean, sariak; 21:30ean, txori-

zo jana eta 23:00etan, erromeria.

EKAINAK 23 IGANDEA

Bigarren Eskuko Liburuaren 14. Azoka Solidarioa. Algortako Kultur Etxean. 11:00-14:00.

Ingurumen Aretoa. Txiki tailerrak: 6-14 urte. 10:30etik 13:30era. Beharrezkoa da alde aurretik izena ematea. Tel.: 688 88 35 96 eta <http://www.ingurumenaretoage-txo.eus/?lang=eu>

Zubiletako jaiak. 12:00etan, umeentzako krosa; 12:30ean, bitza eta puzgarriak; 13:00etan, herri kirolak (Inaxio Perurrenarekin); 16:00etan, puzgarria; 17:00etan, aurpegiko pintura; 18:00etan, txiki festa; 19:30ean, buruhandiak Agurrekin; 20:30ean, txokolate jana; 21:00etan, Andres Isasi Musika Banda; 22:00etan, suzko zezena; 20:15ean, San Juan sua; eta 24:00etan, jaien bukaera.

Antzerkia. 20:00etan, Utopian (Errotatxu poligonoa), "Crystal moments". Sarrera: 5€. <https://www.utopiangetxo.com/eu/>

EKAINAK 25 ASTEARTEA

Odol-emate. Algortako Erredentorearen aparkalekuan. 16:30etik 21:00etara.

EKAINAK 26 ASTEAZKENA

Versadas olerki kluba. 2018/19 denboraldiaren amaiera. Algortako Kultur Etxean, 19:00etan, olerkiak irakurri edo entzun nahi dituzten olerki zaleen saioa. Oraingo honetan, Silvia Plath. Sarrera dohainik.

EKAINAK 27 OSTEGUNA

Kirol Portua. Getxo outlet. Ekainaren 30era arte.

EKAINAK 28 OSTIRALA

Azaleko minbiziaren aurkako kanpaina. Ereaga hondartzan. 11:00-14:00.

EKAINAK 29 LARUNBATA

Ingurumen Aretoa. 10:15-12:15h, "Boluuko esploratzaileak". Beharrezkoa da alde aurretik izena ematea. Tel.: 688 88 35 96 <http://www.ingurumenaretoage-txo.eus/?lang=eu>

Antzerkia. 20:00etan, Utopian (Errotatxu poligonoa), "Cabaret Voltaire". Sarrera: 10€.

EKAINAK 30 IGANDEA

3. Txiki Kanta. Muxikebarriko Ereaga aretoan, 12:00etan, haur-abetesbatzen jaialdia sei talderen eskutik. Sarrera: Algortako eta Romoko Kultur Etxeetan jaso beharreko gonbit-txartelez. Antolatzailea: Lilura abesbatza.

Ingurumen Aretoa. 10:15-12:15, familientzako Escape Rooma. Beharrezkoa da alde aurretik izena ematea. Tel.: 688 88 35 96 <http://www.ingurumenaretoage-txo.eus/?lang=eu>

Antzerkia. 20:00etan, Utopian (Errotatxu poligonoa), "End". Sarrera: 5€.

liaren bizitzarekin eta lanarekin bateragarriak. Tel.: 659 67 40 25.

- **Berreskuratu** zure argazkiak, bideoak eta familiaren pelikula. Pasatu DVD formatora. Tel.: 630 26 58 75.

- **Pertsona baten bila** publizitatea jartzeko Getxo-Leioa aldean. Tel.: 690 95 06 57.



- **Familien bila gabiltza** Getxon atzerriko ikasleei ostatu emateko. Egonaldi laburrak eta fami-

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukien egiazko-tasunaren erantzule izango.



Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF > Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitza lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero. Komunikazio zinegotzia: **Amaia Agirre** Zuzendaria: **Javier García**. Erredaktoreburua: **Itziar Aguayo**. Erredakzioa: **Nekane Ardanza**. **Monika Rodrigo**, Iñigo Olondo.

Urgull Kalea z.g., 4º. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo.

E-posta: getxokoudalarentsa@getxo.eus

Arte arduradunak: **Bostnan Bilbao S.L.** Inprimaketa: **Bilbao Editorial Producciones S.L.U.**

Banaketa: **Lantegi Batuk** Gordailu legala: **BI-388-87**

Ekainaren 21, 22 eta 23an erakutsiko dira jendaurrean

Etxe-abereak jasotzeko udal zerbitzuan dauden txakurrak adopzioan emateko kanpaina

Udalak kanpaina bat antolatu du etxe-abereak jasotzeko udal zerbitzuaren egoitzan dauden txakurrak adopzioan emateko. Kanpainak *Ez erosi, adoptatu!* goiburua dauka eta bere helburua da kalean aurkitzen diren eta familia baten zain dauden txakurrei bigarren aukera bat ematea. Hori dela eta, ekainean, hiru egunean, jendau-

rean erakutsiko dira gaur egun etxe-abereak jasotzeko zerbitzuan dauden txakurrak, adopzioan emateko. Horren arabera, hilaren 21ean, ostirala, Algortako San Nikolas plazan izango dira aipatutako udal zerbitzukoak animaliekin, 16:00etatik 20:00etara; hilaren 22an, larunbata, Romoko Santa Eugenia plazara eramango dituz-

te, 10:00etatik 14:00etara; eta hilaren 23an, igandea, Areetako Geltokia plazan izango dira, 10:00etatik 14:00etara ere.

Horrekin batera, Udalak kartel bat prestatu du alde aurretik, non Getxon jasotako txakur guztiak ikusten diren. Adin eta arraza desberdinetako txakurrak dira agertzen direnak; gehienak lagunkoiak direla esan daiteke.

Kartela ikusgai egongo da kanpainan zehar txakurrak erakutsiko diren tokietako inguruetan. Gomendio bat ere jasotzen du kartelak, hain zuzen, kalean txakur bat aurkituz gero zer egin jakiteko: etxera ez eraman eta Udaltzaingora (94 466 02 02) edo Ingurumen Arlora (94 466 01 91) deitzea gomendatzen da. Etxe-abereak jasotzeko zerbitzuak hartuko du animalia identifikatu eta bere jabea aurkitzeko ardura.



Elikadura osasungarria eta jasangarriaren aldeko tokiko ekimenak ezagutzera emango ditu

"Getxo Elika gara" proiektua sortu dute

Getxo Elikak, Getxo Kirolakek eta Udal Ekonomia Sustapenerako Arloak bultzatutako ekimenak, *Getxo Elika Gara* proiektua abiatu du. Getxo Elikak udalerrian Elikadura Osasungarria eta Jasangarria sustatzea du helburu. Ekimen berriarekin, aipatutako esparruan jardunbide egokiak aurrera eramaten dituzten tokiko ekimenak ezagutzera eman nahi da. Horrela, gure bizi-ohiturak hobetuko dituzten ekimenak, joerak eta kontsumitzeko erak gerturatuko dizkigute, eta herriarrak kontzientziatuko dituzte iraunkortasunaren inguruan.

Getxo Elika Gara-ren bidez, elikadura osasungarri, jasangarri eta seguruaren aldeko alderdi garrantzitsuak garatzen dituzten bertako eragileen balioa nabarmendu nahi da: sasoiko produktuak erabiltzea, bertan



ekoiztea, gertutasuna edo 0 km deritzona, dietak pertsonalizatzea, garapen gastronomiko berriak, elikadura segurua eta kalitatezkoa, hondakin murrizketa, elikagaiak ekoizteko sistema berriak, teknologia berriak txertatzea balio-katean eta garapen jasangarriaren helburuen alde lan egitea.

Orain arte, Getxo Elikak tokiko bost ekimen nabarmendu ditu: dieta pertsonalizatzean arreta

berezia jartzen duen Nutre-t zentroko Itxaso Marin nutrizionistarena, elikadura ekologikoa ariketa fisikoarekin eta ongizatearekin integratzeko apustua egiten duen Lamiak zentroarena, bertako produktuez egindako platerak eskaintzen dituen Andra Mariko Getxo Zaharra Batzokiarena, Runappetit sareen bidez kirolarientzako errezeta osasungarriak zabaltzen dituen Imanol Loizagarena eta Artalde elkartearekin batera sukaldaritzari buruzko kalitate handiko prestakuntza eskaintzen duen Lucía Aragonésena. Hala, poliki-poliki, Getxoko Elikadura Osasungarri, Jasangarri eta Seguruaren Mapa osatuz joango da.

Ekimen honetan parte hartzeko interesa dutenek kaixo@getxoelika.eus edo www.getxoelika.eus webgunera jo dezakete.

60 kg zabor bildu dira Arrigunagan

60 bat kilo zabor bildu zituen urpekari talde boluntario batek -40 lagun inguru- Arrigunagako hondartzan; aurreko larunbatean antolatu zuten ekintza Marefundum Elkarteak eta Divertek Klubak itsas hondoa garbitzeko. *1 m2 por la naturaleza* izeneko ekimenaren barruan antolatu zen ekintza. Bildutakoaren artean aipatzekoa da pisu handiko hondakinak zeudela, hala nola sare abandonatuak eta metal-abarrak, tartean belaontzi baten atea; eta kopuruagatik ere nabarmentzekoa da 50 oinetako-zola batu zituztela. Estatuko kostalde osoan, 11 tona hondakin baino gehiago kendu ziren.



"Nahi dudalako" kanpaina

Ikasketak euskaraz jarraitzea animatzea da Udalak, Alkarbidek, Foru Aldundiak eta EUDELek abian jarritako *Nahi dudalako* kanpainaren helburua. DBHko hirugarren eta laugarren mailetako gazteek www.nahidudalako.eus webgunearen bidez ezagutu dute ekimena. Bertan euskararen erabilerei buruzko inkesta bat bete ahal izan dute, eta horien artean zozketatutako *Ipad mini 4 wifi* Ane Chamizo Elozegi getxotarrantzat izan da (Aixerrota Institutuko DBHko 4. mailako ikaslea).



Ospakizunak San Juan gaua dela eta

San Juan gaua dela eta, familientzako jaia ospatuko da igandean, ekainak 23, Algortako San Nikolas plazan, Bizarra Lepoan, Egizu Getxo Euskaldun eta Gorrontatxe Elkarteek; Getxoko Etorokinak Federazioa eta Yala etorkinen harrera Plataformek (Harribide proiektuaren barruan); Itxartuk eta ALBEk antolatuta, Udalaren laguntzarekin. Jaia 18:30ean hasiko da diskofesta batekin; 19:00etan aurpegia margozteko tailerra izango da; 19:30ean bertsoariak; 20:30an txokolatea eta munduko postreak dastatzeko aukera, eta 21:00etan antzeppen txiki bat.

Gainera, San Juan gaua Malakaten ospatuko da Itxas Argia elkartearen eskutik, eta Zubiletan ere, jai egitarauaren barruan.

Segurtasuna, prebentzioa eta garbiketa

Aurreko urteotan bezala, Udaltzaingoak baimenik gabeko suteak ez egotea zelatatuko du eta baimendutako suteen erretzea zainduko du, istripuak ekiditeko. Gainera, Ertzaintzaren laguntzarekin, prebentzio zerbitzua jarriko du abian hondartzetatik gertuko tokietan, istiluak eta herritarrentzako arazoak ekiditeko; lan egingo du adingabeek

alkohola ez edateko eta eraso sexistarik gabeko jaia gozatu ahal izateko ere. Udalak, urtero bezala, aparteko garbiketa-zerbitzua ere jarriko du abian, hondartzak eta ospakizunen inguruko kaleak garbitzeko.



“Balkoitik Bakoira”

Ostiralean, hilak 21, 22:00etan Portu Zaharreko Etxetxu plazan *Balkoitik Balkoira* bertsolarien ikuskizunaren beste edizio bat izango da. Protagonistak Onintza Enbeita eta Sustrai Kolina izango dira. Horiek bi balkoietatik botako dituzte beren bertsoak. ALBEk antolatzen du doako saioa, 1802an Tolosan hasi zen tradizioa berpizteko. Oraingoan jardueraren honen 18. ekitaldia izango da Getxon, 1998an Algortako San Nikolas plazan lehenengo aldiz ospatu zenetik, publikoaren erantzun apartekoarekin.

Sarrerak agortuta “Irribanda” haurrentzako ikuskizunerako

Ostiralean, ekainak 21, Muxikebarriko Ereaga aretoa jendez gainezka egongo da *Irribanda* ikuskizunaz disfrutatzen. Bertan Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak arituko dira Getxoko Biotz Alai Txiki, Lilura Abesbatza eta Kimetz Abesbatzarekin batera. Ikuskizuna 19:00etan hasiko da eta sarrerak aspaldian agortu ziren. *Irribanda* ikuskizunak berriro hartu nahi du Pirritx, Porrotx eta Marimotots Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin eginiko kontzertuaren izaera, musika banda formatura moldatuta. Pailazo ospetsuen kanta ezagunenez gozatzeko aukera izango dugu saio honetan. Xabier Zabalak egin ditu moldaketak Musikalia Bandarentzat (Ana Legarretak zuzenduak) eta Biotz Alai Txiki, Lilura eta Kimetz haur abesbatzek parte hartuko dute. Aukera izango dugu hiru pailazo ospetsuen abesti ezagunenetako baztuk entzuteko, besteak beste, *Pirritx, Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore, Ake-*



larrean, Eutsi goiari, ijito!, Abuela Maria Luisa, Titu & Kintxo Barrilete, Abordatzera!, Muxu-truk, UNBLEBLE!, Minutu bat goizero, Ez gaude salgai, Gorriti Aztia eta Maite Zaitut.

Ikasturte amaiera ALBE

ALBE, Algortako Bertso Eskolak ekitaldi bat antolatu du ikasturteari amaiera ipintzeko, larunbatean, ekainak 22, aurreko urteotan egin duen bezala.

Egitarauari hasiera emateko, partaideak Algortako Geltokia plazan elkartuko dira 11:00etan, eta handik Zubilletako jaietara jaitseko dira, musikak, eta Maider Barañano, Peru Irastorza, Jare Torralba eta Oier Erremerteria bertsolariak lagunduta. Ondoren, Leioako jate-txe batera joango dira autobusez, bertso bazkaria izateko.

Parte hartu nahi duten pertsonak albegetxo@gmail.com helbidean edo 605704385 telefonora jo behar dute izena emateko. Prezioa 20€koa da, 15€koa ikasle eta langabetuentzat. Informazioa: www.albe.eus.



Nuestra Señora de Europak 2019ko Kultura Ondarea irabazi du

Fantastic Beasts and where to find them in Bilbao (Basapizti fantastikoak eta Bilbon hauek non aurkitu) bideoak, Nuestra Señora de Europako ikasle talde batek egindakoak, lortu du Kultura Ondarea saria. Sari horiek Eusko Jaurlaritzak antolatzen ditu Euskal Ondarea teknologia berrien bitartez zabaltzeko helburuz. Saritutako lanak paralelismoa proposatzen du Bilbon dauden elementuen —batez ere arkitektonikoak— eta animalien munduaren artean. Sariari esker, hil honetan Napolesera joango dira. Bertan, hiriko alkateak egingo die harrera eta bisitatuko dituzte kultur ondarearen ikuspegitik interes handia duten lekuak.



Ibai Martínez Puente, 17. Olinpiada Matematikoaren txapelduna

San Nikolas Ikastolako ikaslea den Ibai Martínez Puentek irabazi du *Eduardo Chillida* 17. Olinpiada Matematikoa. DBHko 2. Mailako 3.000 bat ikaslek hartu dute parte, Euskadiko 105 zentrokoak: 20 arabarrak, 52 bizkaitarrak eta 33 gipuzkoarrak. Akabuko fasera 259 ikasle iritsi ziren. Laugarren tokian Azkorri ikastetxeko Ibai Jurado Ortún sailkatu zen. Saria jaso duten lehenengo lau pertsonak Ingalaterran egonaldi batez gozatzeko aukera izango dute, beraien ingeles maila hobetzeko. Argazkian, Ibai dageri Itxaso Benito ikastolako irakaslearekin; Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuarekin eta Luis Chillida olinpiadari izena ematen dion eskultorearen semearekin.



Yahaira Aguirrek, Unai Basurkok, Cristina Lizarragak eta Garazi Sánchezek hartuko dute parte odola ematearen garrantziaz kontzientziatzeko kanpaina batean

Bihotz Handi elkarteak 25. urteurrena ospatuko du

Bihotz Handi odol-emaileen elkar-
tearen 25. urteurrena dela eta, la-
runbatean, ekainak 22, 19:00etan,
ekitaldia egingo dute Romo Kultur
Etxean. Bertan bideo-emanaldiak eta
hitzaldia egingo dira, baita mahai-
inguru bat ere, Bihotz Handi, Alcer
(Giltzurrun-gaixotasunen kontrako
borrokaren elkarten federazioa) eta
herriko emaile eta hartzaile batzuen
parte hartzea izango duena. Gos-
pel Bilbao-ren emanaldi musikalak
emango dio amaiera. Ekitaldi osoan
zehar, Pablo Astrain margolari ge-
txoztarra bertan gertatzen dena isla-
tzen duen formatu handiko koadroa
marrazten egongo da. Ekitaldira joa-
teko, bihotzhandigetxo@gmail.com
helbidera mezu bat bidaltzea (izena
eta bi abizenak zehaztuz) edo 609 61
81 58 telefonora deitzea besterik ez
da behar.

Kontzientziatzeko kanpaina

Gainera, herritarrek odola ematearen
garrantziaz kontzientziatzeko, Bihotz
Handi elkarte kanpaina egiten ari da.

Horretan Getxoko hiru kirolarik parte
hartuko dute (Yahaira Aguirre, Unai
Basurko eta Garazi Sánchez), Cristina
Lizarraga abeslariarekin batera.

¿Quieres salvar vidas? Bizitzak salbatu
nahi dituzu? lelopean eta sare sozia-
letan zabaldu diren hainbat bideotan

lau pertsona horiek gogoeta egiten
dute euren ogibideek baloreak trans-
mititzeko daukaten gaitasunari bu-
ruz, baita odola emateak daukan ga-
rrantziari buruz ere.

Elkartetik ondorengo datuak gogora-
razten dituzte: "5 minuturo pertsona

batek odola behar du Euskadin. Ema-
te arrunt batek ez du 10 minutu baino
gehiago irauten, baina hiru bizitza salba-
tu ditzake. Ospitaleratzen den 10 lagu-
netik 1ek odola behar du eta odola eman
dezaketen pertsonen %4k besterik ez du
egiten erregulartasunez".



13 odol-emaile getxotar omendu dituzte

Odol-ematearen Munduko Eguna ospatu dela eta, Bizkaiko Odol-emaileen Elkarteak jendau-
rreko omenaldia eskaini die lurralde historikoko odol-emaileei, hoiatariko 13 getxotarrak,
2018an 40/50 odol-emateetara (40 emakumeen kasuan, 50 gizonenengan) iritsi izanagatik. Au-
rreko urteotan bezala, ekitaldia Deustuko Unibertsitateko paraninfoan egin dute, duela gutxi.

**BIZITZAK SALBATU
NAHI DITUZU?**

**¿QUIERES SALVAR
VIDAS?**



#Salvavidas
#BizitzakSalbatu
#ZorionakBihotzHandi

KIROLAK

Dravet Sindromea pairatzen duten umeen alde

5. Igeriketa zeharkaldi solidarioa, Kirol Portuan

Getxoko 5. Igeriketa Zeharkaldi Soli-
darioa egingo da Kirol Portuan igande
honetan, hilak 23, 11:00etan, Getxo Ki-
rolak laguntzaz. Lasterketa herrikoia
da eta bertan Desafía Dravet irabazi
asmorik gabeko elkarreentzat dirua
bilduko da. Elkartearen helburua, Dra-
vet Sindromea pairatzen duten haurren
bizi-kalitatea hobetzea da. Jatorri gene-
tikoa duen gaitza da, sendaezina den
epilepsia forma arraro bat, 16.000 jaiobe-
rritatik batek pairatzen duena.

Probak, gainera, David Mecaren babes-
dauka, munduko igeriketa txapelduna.



Horrek bideo bat grabatu du jendea ani-
matzeko proban parte hartu eta ekintza
solidario hori lagundu dezaten: <https://bit.ly/2VdF6hz>

Irteera eta helmuga Arriluzeko pantalan
lagungarrian dira.

Fernando Téllez, Getxo Igeriketako, Espainiako txapeldun berria

Banyolesen (Girona) jokatu zen aurreko
asteburuan 10. Espainiako Ur Irekietako
Open Master Txapelketa, 3.000 m-ko pro-
ba. Bertan, Fernando Téllez izan zen Es-
painiako Txapelduna, 55 urtetik gorako
kategorian. Igerilariak 40:14.4-ko marka

egin zuen. 2017an distantzia luzeko Es-
painiako Open Master txapelketa irabazi
zuen, 3.000 m-koan, 50eko igerilekuan;
eta 2016an, beste lau domina eskuratu
zituena Espainiako Masters Open Txapel-
ketan, Kanaria Handian.

27 domina aulki mugikorreko Euskadiko Txapelketan

27 domina. Horixe da duela gutxi Legu-
tion jokatuak Euskadiko Txapelketan
Raspas eta Getxo Arraunek bildutako
uzta. Kadete, gazte eta senior mailan, 24
izan dira irabazitako metalak, Raspas do-
mina-zerrendaren buruan dela: 10 urre,
5 zilar eta 3 brontze. Getxo Arraunek 3

zilar eta 3 brontze batu ditu. Haur eta be-
teranoetan, 3 dira irabazitako dominak,
urre 1 (beteranoena) eta brontze 1 Getxo-
rentzat eta zilar 1 Raspasentzat.
Aipatu azkenik, Raspaseko Nerea Martín
Aragónek ergometroarekin lortutako Es-
painiako errekorra, 13-14 urteko mailan.

Larunbat honetan, hilak 22, Faduran

Eskolak eta hitzaldiak Yogaren Nazioarteko Egunean

Yogako 18 eskola eta profesionalak,
guztira, Getxo Kirolakekin batera, to-
paketa irekia antolatuko dute moda-
litate horretan, pertsona guztientzat,
larunbat honetan, ekainaren 22an, Fa-
durako kiroldegian. Bertako zentroek
Yogaren Nazioarteko Egunearekin bat
egiteko prestatu duten programaren
barruan 25 lantegi eta hitzaldi eskaini-
ko dituzte, ikuspegi desberdinarekin:

yoga terapeutikoa, meditazioa, erlaxa-
zioa eta luzatze-ariaketak, besteak beste.
Egunari hasiera 10:00etan emango dio-
te, eta aldi berean 5 gunetan garatuko
da 19:30era bitartean. Programa ixte-
ko, meditazioa egin eta kontzertu bat
eskainiko da. Jarduera guztiak doa-
koak dira. Programa osoa ezagutzeko
Getxo Kirolak-en web orrira jo deza-
kezue.

Javier Olaizola da Arenas Clubeko entrenatzaile berria

Javier Olaizola donostiarra da Arenas
Clubeko entrenatzaile berria. 49 urte-
koa, Toulouse, Eibar eta Burgoseko jo-
kalaria izan zen, baina benetako arra-
kasta Mallorca taldearekin lortu zuen;
han hartu zuen erretiroa 2004an, 34
urte zituela. Sasoi batez bermiloi tal-
dean teknikari izan ondoren, Atlético
Levanterekin fitxatu zuen 2018an; urte
horretako ekainean 3. Mailatik 2. Bra-
igo zuen.



Basque Pool Series Skate Txapelketa Series

La Kanterako skateparkean, 11. Bas-
que Pool Series Skate Txapelketa egin-
go da larunbat honetan, ekainak 22,
17:00etatik aurrera. Kantera Skate Es-
kolak Getxo Kirolak-ekin elkarlanean
eta Euskaltelen babesarekin antolatu-
tako txapelketan, Euskadiko eta pro-

bintzia mugakideetako 50 skater baino
gehiagok hartuko dute parte Txiki, 16
urtez azpiko, Open eta Nesken katego-
rietan.
Guztira, 500€ banatuko dira eskudi-
rutan eta skateko materiala ere eman-
go da.